

## Karga-deskarga

estalapetik

Dauneko batzuk hiru bat aste; estalapan gitxian (non bestela egualdi harekin) eta belarritakoz jositako gazte bat bildu huan gurena, lotsatu xamar. (Damianek esaten denez goiko Erramunen iloba omen huan, baina nik neuk gaur egungo gaztiak ez dizkiat ezautzen; bilobak justu justu). Gaztiak, edukazioz arratsaldeonak eman eta zapla bota zian bota biharrekua: Baleiken edade-tuen ahotsa faltan botatzen omen zian herriyak eta ea gu prest omen geben zer edo zer "idazteko".



Joxe Luis

Zoro etxetik ihesitakoei bezelaxe beiratu genitxion eta ezer esan baino lehen beak hartu zian berriz aurria: «Idazten ez bazeate ATREBITZEN, zuek kontau eta neuk idatziko det». «Atrebitu ez gu?», hala esan genitxion Baleikeko gaztiari, «Atrebituko ez gaituk, ba, motel, ze usten dek guk ez geniala eskribitzen ikasi o ze?». Esan, hala esan genian, eta orain bete egin behar.

"Atrebitu" ta gero ez diau ia beste kontuik izan estalapan. Kronista aukeratzeakuan aspaldiko kontuak harrotu dizkiau: zeinek zekan letra onena, zeinek jasotze zun beti diploma... Danok berriz e eskolan bezela. Azkenian, zotz in diau, beti bezela. Ta neuri tokatu bihar!

"Behin kronista izendauta kronika itia erreza dek, Joxe Luis, guk kontau ta hik eskribiu" hala jarduten zie lagunek, danak gustoa tokatu ez zaielako. Eta ez die arrazoi faltik beti zioke eta ze kontatua eta ze jarduna.

Eta halaxe hasiko nauk, lagun artian gehien komentatzen danakin.

Danok zikiu Erribera kalia ezin dala aparkau, baino bertako komertzio eta gainerakuek generua ingurau ahal izateko "Karga-deskarga" ametitze die goizez. Hala ere Zumaiarrok goizero, goizero Erribera kalia kotxez itozten diau; bi azerak "karga-deskargan" daben kotxez beteta eta erditik autopista. Erriberan oinez atzea ta aurea ibiltzia kosta eiten dek geo.

Izan ere, batzuntzat eozer dek "Karga-deskarga":

Bankutik pasa biharra dakaula zeezerta? Lasai, kotxea "karga-deskargan" utzi banku aurrian ta barroa.

Periodikua ta ogia hartu bihar diala? Hori "karga" dek bate dudik gabe.

Baxoerdia hartu nahi deula? Aparkalekua tabernan aurrian, hori ere "Karga" dek eta.

Oestian bezela Erriberan e dana libre!

Ta txaperuak? Nun dia txaperuak? Beste batzutan earki astintzen dizkie abixuak eta multak baina Erriberan pasian ere etxuk ikusten.

Eaten batek pentsatuko dik geure buruai baino etzioula beitzen, baina gu baino okerro ibiltzen txuk ume kotxiakin pasian gora ta behera dabil-tzan ama eta neskameak, haiek bai eskertuko duela "Karga-deskarga"-kin bukatzia.

Eta "autoridadiak" jakin beza lotsagarria dala herriko kale nobliena kotxien aparkaleku bihurtzia, eta okerro oaindik beste aldea beitzia ezer pasako ez balitz bezela.

Hurrenguan kontu gehio.

## Babes ofizialeko garajiak

Motellak! Eztek giro!

Kronika hau hilero in bihar gendula benetan kontuatu nitzanian pentsatu nian:

-Ta notiziyak? Ze kontatua eongo ote dek Zumaian? "Zaharra berri, gaztien amorragarri" esate zian gure amonak, bere amonak ala eakutsita.

Ta halaxe esan nitxien kuadrillakuei:

-Kronika danon artian in bihar diau bai, ta badakizue, notiziyak bihar dizkiat, notiziyak. Ta ez badao asmatu, baña asmatzekotan ona asmatu.

Eta, motellak, aspaldian notiziya besteik etziok.

-Hi Joxe Luis —Juan Marik— ikusi al dek nolako draga datorren erriyuan gora? Hori bai barkua ta ez garai bateko gabarra zahar hura!

-Guain etorri bihar al zian horrek lokats dana altzatzea? —Juakinek aldamentetik— Umiak erriyuan bañatzen dian sasoiari? Lotsik ez!

-Hi Joxe Luis —Karlosek— geraniyuak jarri dixkie karretera generalian!

-Hi Joxe Luis...

Ta Joxe Luis letxe batian.

-Hi Joxe Luis —Damianek, adar jotzen— nun aparkau dek?

-Gaur eztiat kotxeik ekarri, mollan arrasto oker hoiek pintau dixkietetik etziok aparkatzeik eta. Gañia ibiltzia ona omen dek.

-Bai motel, egunian egunian kotxe geio ta geo ta leku gutxiyo —Karlosek—. Ta uda hasi baino eztek in. Eon hai kanpotarrak arrimatze txukenian nolako festa.

-Baña nola aparkatuko dek ba udan, neguan nahiko lan izaten dek

eta astebukaeran. Garai batian Larretxo omen uan problema, baina gaur egunian zubi txikitik barrura etziok aparkatzeik. Eta zubi txikitik kanpoa e kostata.

-Badakizue ze in bihar dezuen, Garajia erosi ta kitto. —Juan Marik—.

-Igertze zak bai etxe onekoa haixela. Garajia erosi esaten dek? Ta dirua zeñei lapurtuko ziot, hiri?

Hor jardun diau, estalapan, txikiteoko ordua artian, geo baxoerdiak nahiko lan eman ziu, baña erretiran nijuala

zea pentsatu diat: "Zeatik ez ote dia babes ofizialeko garajiak iten? Iten dia, ba, etxienak? Ta garaje biharrik ez al dao, ba?"

Ta halaxe hitzein diat kuadrillakuekin eta danok "de akuerdo" behingoz (bueno, Juan Marik eztiak arpei onik jarri baño horrek bazikak garajia), iruitzen zikuk babes ofizialeko garajiak itiak asko hobetuko lukela bertakoen aparkatzeko arazua. Bazikiu askok parregarrizat hartuko duela (seguru garajia badakela), baña bitartian batzuk nazka nazka inda gatxibek aparkatzeko letxe horrekin; kotxeiko inpuestua kobratzeakuan earki akordatzen dia zenbat kotxe daben.

Autoridadiak babes ofizialeko garajetxo batzuk in eta hiru mila euroan edo salgai jartzia bai izango zala lore ederra, zimeltzen ez dan hoietakua.

estalapetik



Joxe Luis

## Bero eta ixtu

Bero zitorrek uda, bero; eta ixtu!

Estalapan ibiltze geazenak e ez gattuk oaintxe mollako aparkamientuan kabitzen.

Etzibilek beste kontuik inguruan, aparkamientua gora, aparkamientua beheara. Ezin kabituan danok. Eta gañea bero!

Kuadrillan indako kontuetan mollan zibitian aparkalekuen erdiak eo zibek gaur egunian. Ta ez pentsatu geo eozein moutan indako kalkulak diazenik; alperrik ibili dek, ba, Damian, aparkalekuak banan-bana kontatzen mollan gora ta beheara zebilen bitartian. Betitik izan dik Damianek buru ona numeruentzat eta etzian bat bea ere utziko kontau gabe. Konparaziyuak iteko planuak, beriz, Antonio deliniantiak in dixkik, leno aparkatze zan mouan sartze zian kotxiak beltze eta oaingo arrasto madarikatu hoiek gorritz ondo-ondo markatuta.

"Hermano Luis" alu harek esate zian bezela "matematikak eta apazak ez die gezurrrik esaten": leno bi aldiz kotxe gehio sartze huan mollan gaur egunian baño.

Ta horrek beti sortzen dik ze esana ta ze iña. Karlos sututa zibilek (beti izan dek pronto txarrekuia gizon hau) doble filan utziku duanan amenazuka egunero; Juan Marik beriz molla ta Amaia plazan "Bertakoak" eo "Betikuak" dianentzako aparkamientua eskatzeko firmak biltzen hasi bihar omen dik estalapan bertan mahaia jarrita; ta Antonio... Antonio etsita zikau, lurjota, garajien preziyuak galdetzea jun eztek, ba.

Gañohtzeko kuadrilletan e antzeko komentayuk aitze txuk: aber zeatik hasi dian udan, kotxe gehien juntatze dan tenporadan, aber

kanpotarrak uxatu nahi txoun, aber Zautzan enbidiya dakaun... danetik aitze dek, baita bizikleten bidia jartzeoko ordua bazala ere.

Nik neuk etzikat inolako intentziok nere iritzia emateko; jesukristonak eta bi itu bihar izan dixkiat babes ofizialeko garajiak ziala ta etziala bai, ta hemendik aurrea kuadrillako izkribientia baino ez diat izan nahi.

Ta kuadrillan mila buelta eman da geo atea dixkiu gure ondorioak; ze egia dek "Hermano Luis"en garaian esplikazio gutxi eta belarrondoko ugari jasotze huala, baño horrek ez dik esan nahi eskolaik ez dakaunik, ta urtien eskolak esate ziuk autoridadiak ez dula sekula santan dirua biltzeko aukeraik galtzen; horreatik, zea pentsatze diau kuadrillan: lenuo eo beranduo autoridadiak aparkatzeatik kobratu nahiko diula, bai, ditxosozko TAO, OTA, eo holakoa bat. Ez dek gañia gure kuadrillan bakarrik aitutako komentayua. Ez ote deu holakoik ikusiko bizi gean artian, baña piatu hai zezenakin.

Dana dala, ta biziik harrapatze baziuk e, ez huke txarra izango, Autoridadien aldetik Eusko Tren eta holakotan jubilatuentzat jartzen diazen deskuentuak aparkamientuan e jarriko balitu.

Hurrenguan kontu gehio.

estalapetik



Joxe Luis

## Ditxosozko bakazixuak

Bukatu txun; kostata baño bukatu txun ditxosozko bakazixuak. Ene! Aurtenguan e ezinat bate errezzatu agostua bukatzeko; izan e Caritas emate nau; bateko umia ta besteko jatekoa, ni behintzat beti bukatu ezinian ibiltze naun. Normalian semia etortzen den goizian goiz Mikelekin, etxeko txikixakin ta alaba geo Amaia eta Itsaso bixkixekin. Maitagarrixak hirurak, baña zezen txikixak baño bihurrixo. Ordurarte jasotako guztixak aitaren batian nahastu ta segituan txun sukaldian:

- Amama, Triskis!  
- Amama, amama, nik txokokrispis!  
- Amama Arritxu, guazen parkea  
- Amama....  
- IXO!! Hainbeste triskis ta traskis geo. Ala, jaso atea txozuen trastuak ta guazen noabaita.

Etxia hankaz gora utzi ta parkea jute gattun laurok; han e ixa egunero izate ni zirkua; bat kolunpuxuan bultzatzeko iñez, bestia berriz txirristan eroi ta near batian, ta askotan hirugarrena nun dabilkiun arrastok gabe.

Hamabixak aldiñ erraña ta alaba etortze txun, plaiatik bueltan umiak jasotzea; ni berriz etxea presaka gizonai bazkixa prepaatzea. Ta etxia hankaz gora, norik jasoko zai. Akabo atsaldeko siesta.

Ta aste bukaera alleatu orduko, ala! Danak geurera:

- Ama, plaiatik bueltan jungo al gea bazkaita?  
- Ama, eukiko al txozu umiak gaur gabian? Afaita jun nahi deu lasai-lasai aspaldiko partez

Nik ententidze dinat, gaziak txun ta bakazixuak disfrutat nahi dizkine, baña "amama Arritxuk" e mereziko txu ba bakazixuak, eo? Ba, ezetz ematen din, agostuan ez behintzat, hil hontan baño lan gehixo

ez diñat eta inoiz iten.

Gizonak zeoze ingo balu sikiera... Hura bai bizi dala bakazixotan, jubilau zanetik gure Damian bakazixotan bizi den. Beti badin zeoze etxetik ihesixan juteko, batian bate-la atxikatu bihar dula, hurrengo semia ta bixak itxasoa dijuazela, hurrengo berriz lagunekin geatu dala... Batzuk ondo bizi txun, ondogi. Denbora nola pasa etzikine ta hor ibiltze txun, batei punta atea ta bestiai zirixa sartu, estalopian. Gure Damianek e majina ordu alperrik galtzen dixkin Erribera kaliañ gora ta bera zurrutian. Ta ikusi nunian Joxe Luis Mokok ta bere akolituek (tartian gure Damian) Baleiken "jubilauen izenian" eskribitu bihar tzuela pentsatu niñan:

- Alper kuadrila honek tontokexak besteik ez dizkiñe kontatuko, bai, ta neuk e Baleikekuekin hitzeingo ñat aber lan iten deun "jubilautentzat" e tarte bat daon.

Baleikeko hoxek etzikinat ze maketazixo problema ziala ta etziala behintzat bixak batea ezin tziala atea esan zinenan, ta batian bat ta hurrenguan bestia txandaka ateako zittuela. Nei soluzixo ona iruitzen zikan, batez e Joxe Luis Mokoi ta gure Damianeñ bere tontakexen partez hau ikusten duenian jarriko zaien tripako miñakin akorratzen zaxenian.

Guain herriko plaia, disfrutatzea.



Arritxu

## estalapetik

## Hemen gaituk berriz e

Hemen gaituk berriz e; hemen gaituk bueltan. Ta gañia seguru gatxibek guk dakiun batek nahi baño irakurle gehiok bota txula faltan gure kontuak. Guri behintzat majina bat herritar arrimatu zikuk kezkatuta; aber ba aurreko hilian zeatik ez deun eskribitu, ia ez deun gehio eskribitu bihar, ta holakuak.

Egia esan, Baleikeko tximoso hoiek ezte besteik meezi; nola leike ezerre esan gabe fiñ-fiñ indako kronika ez publikatzia, ta hori izango bauke dana... guria kendu ta beste kontakatilu horren inpertinentziyak jarri etzixkien ba!

Hamabost egunian etzek giro izan kuadrilan; bateko biraua ta beste-ko madarikaziya! Lotsik ez, ez batek ta ezta bestiak e; batek, kontakatilu piiiiaiiiiiiiiii horrek esan dittunak esateatik, eta beste tximoso piiiiaiiiiiiiiii hoiek gurian partez beria jartzeatik.

Etorri huan hurrengo hila ta han zitorrek Baleikeko tximosua e puntu puntuan "kronika" eske. Jesukristonak eta bi aitua zizkian gizajo harek! Damian heldu in bihar izan ginian, lepoa salto ingo zitxion bestela. Hura huan marrua in hura, Oriyoko balianak txiki laga zizkian Damianeñ. Baña ez huan bakarra izan; zeñek esan tzian euskeraz birauik etzala? Etxixkian ondo ezautzen kuadrilakuak!

Azkenian, aurrez erabakita bezelaxe, zea esan ginitxion tximosuai, huelgan gebela ta hil hontan etzeola kronikaik. Tximosuak marziano arpeya jarri zian:

- Huelgan? Ta ze eskatzen dezue?  
- Ze eskatuko diau ba, beste kontakatilu piiiiaiiiiiiiiii horren inpertinentzi gehio ez jartzia!

- Baña esan genizuen igual beste batenbatekin txandaka ateako gendula ta— tximosuak.

- Ba oain badakik zein dan kondiziyua, kronika nahi badek hilero jarri biharko dek, beste-la batez!

Han jun huan tximosua, mela-mela inda, putzutatik ertenda bezelaxe.

Astebetera azaldu huan gure tximosua, marziano arpeyakin, baño lasai xamar:

- Ze oaindik huelgan?

- Aber ba! Ta kronika ze, hilero?

- Juxtu hortaz hitzezin nahi nun zuekin. Arritxukin eon gea ta esan diyou ze eskatzen deuzen...

- Ta ze esan dik piiiiaiiiiiiiiii horrek!

- Esan diu lasai eoteko, beak hilero hilero eskribituko dula; gañia zuenak baño gauza inportantiauk omen dazka kontatzeko.

- Ta zuek kasu in ezta, txoro hoiek

- Ez, guk nahio txandaka iten badezue baña huelgan segitzen deuzen bitartian Arritxuk ingo omeen txu.

Berehala bukatu huan huelga; hori bakarrik falta diau ba, kontakatiluak eskribitzia hilero.

Orduan badakizue, ondo disfrutau kronika hau, letu bi aldiz, datoren hilian ezta ezer interesanteik eongo ta.

Hurrenguan kontu gehio.



Joxe Luis

## Badator Olentzero!

Bada kontua ta komerixa; "gizonak" ez omen dia, ba, konforme. Dana beaxentzat nahi diñe, beti bezela; beaxek txun inportantiak, beaxek ta beaxen mozkor kontuak. Ta beste batenbatek zeoze esan nahi dunian, protesta! Ba, niatik in dezatela near, in dezatela near ta protesta, gosetzen dianian etorriko dia ta etxea.

-Neska, hauekin noa? -esate zitxian Madalenak plazan- Laiste montauko ñe alardia martxa hontan!

-Alardia? Ta zeñek ingo zizkine uniformiak? Damianek behintzat buzua eraman biharko din, ez behintzat nik indako erro-paik.

-Alardia montatzeko denboak e ba al zikane ba? Hamaiketakua ez danian txikiteua den, ta bestela txalupa arreglatzia, etxeako behintzat ez diñe denpoik inoiz, ta alardia prepaatzeko ez denboak ezta baloreik e! -berriz e Madalenak.

-Gure Joxemarik behintzat etxeko zerralla aldatuta bilatuko din ditxosozko alardia aiatu re iten dadin -Genobebak.

Majina emakume etorri zaiten animuak ematea, arrazoi detela esanez ta ez atzea iteko erregutuz. Ta halaxe erabaki dinat, ba, aurrea itia, ta mozkorren komentayuai apaizanai bezainbeste kasu eitia.

Ta kontu serixotan jarrita gauza bat behintzat nahi dinat komentau; Ayuntamientuak gabonetako bialdu dun programa.

Biloba ikusi niñan ixil ta goibel, letzen ikasi berrixa den ta buzoiko propagandak e goitik bera letze ixkin. Zer tzun galdeu ta zea esan zitxanan:

-Amama, aurten zeatik ez dator Olentzero?

-Olentzero ezatorrela? Ta zeñek esan dizu hori, bihotza?

-Gabonetako programan ez ta agertzen amama, ta etorriko balitz programan jarriko luke.

-Lasai, bihotza, etorriko data. Etzendun ondo letuko.

-Amama, nik badakit letzen, e! Biloba jun da geo, kurisidadez, ayuntamientotik bialdutako programa beiratu ñat ta, bilobak arrazoi! Erregian karterua batetik eta erregiak bestetik, ta Olentzeron arrastoik ez! Patxi xarran garaxan bezela-

-xe.Bestelare batzuntzako nahiko errege ez, ematen dunez!

Karta itekotan eon naun Ayuntamientoa, baña azkenian karta jaso, "eztabaidatu", berriz "eztabaidatu" ta eantzuteako Aste Santu bueltan eongo geanez, denboak ez alperrikaltzia erabaki ñat.

Karta horren partez sukalde txoko hau aprobetatzia pentsatu dinat aurten ere Olentzero badatorrela esateko. Nire biloba bezelaxe, Gabonetako programa irakurri duten gainontzeko neska ta muti-koxkorrek jakin dezaten, autoridadia ahaztu bada re Olentzero ezala ahaztu, ta aurten e etorriko dala, ikatzak belztuta, pipa hortzian, arrautza, kapoi ta ardo botilakin, irrifarez, beti bezela!

Afaxa, ordia, guk prepaau biharko ñau, urtero bezela, Olentzero re gionezkua den eta.

sukaldetik



Arritxu

## Gomezago gripiak jota

Ba ote batenbat sano? Inor libratu al da? Gripia pasa eztunik ba al dao?

Motellak! Halako gizona ta ezertako gauza ez! Hauetxuk eztulak eta hezurretako minak; hau dek barruak hustu biharra; guaintxe "trentinuebetik" gorako kalentura, guaintxe hoztuta.

Astebete pasa diat ohitik jaikitzeo gauza enitzala. Baña okerro eon txukenak e ezautze izkiat. Kuadrilan, Antonio ez, beste danok harrapatu diau gripia; Joxe Mari urgentzita re eaman tzian alabak bost egunian kalentura jetxi ezinda ibili ta geo.

Okerrena ordia zea dek, geyenok ditxosozko bakuna o dana dala-ko horren zaztaa jasotakuak ginala. Marka dek geo, sekula gripeik pasa gabekuak bakuna deitze yoen hori hartu ta jesukriston gripia jota ibli gaituk. Bela sartuko zie orratza hurrenguan!

Ba, gripiak jota ibilita re ez pentsa geo etxe zuluau sartuta eon geanik; haizia hartzia ona dala esate eztie ba, ta non estalapan baño haize hobia?

Gabon kontuekin ibili gaituk gora ta behera estalapan;

-Naekena esango ek Damian, baña lasaitasun earra zioz Erriberan musika eztaonetik- Joxe Marik adarra jo nahian

-Ze esateek geo, bigarren taberna zulotik ertetzeako katxaperuak e etxuk eta somatzen- Damianek

-Ta laugarreneako ikusi re gutxi!- Antoniok- Baña arrazoi zikak Joxe Marik. Izan e ze musika zian haxek.

-Batzuk behintzat beti kontra eongo zeate- Manuelek- Musika daonian daolako ta eztaonian eztaolako, beti protestan!

Baña beroaldi haundiyaen erregien ta Olentzeron bueltan sortu huan; gabon bezpera eo izango huan Martin luxia bero bero inda azaldu zanequa

-Nazka nazka in nauk guaintxe bateko errege ta besteko olentzerokin; esan etzie ba bilobek Olentzeron erregaluz gain erregien-

tzat zapata re jarriko duela gurian! Hori bakarrik falta nian, nahiko buru hauste ez erregalo bat iteko ta guain zea, erregientzat beste bat!

-Okerrena eztek hori! Batetik erregiak eta bestetik Olentzero, eztek besteik aitzin, ta Gomezago ze? Non laga die Gomezago?, batenbat akorratze al da arantzale xelebte harekin?- Damianek, ia bere onetik ateata.

-Arrazoi guztiya dakak Damian-

-Neuk- Seguru nitxiok hamabost urtetik beherako mutil eta neska koskorrek hobeto ezautukoxkiela bizartzuri ta Papanoel Gomezago baño.

-Trixtia dek baño egiya. Hi, ta geuk iten bayu, ze?- Damianek

-Ze in bihar diau ba?- Joxe Marik

-Zea, Gomezagon eskia; izaria besteik eztauh bihar. Gañia kantuan gu bezela gutxik iteyel- Antoniok

-Neuk ekarriko diat izara txuriya- Joxe Marik

Ta hala geatu gittuan hamabost gizoneko kuadrila gabon arratseko estalapan, zazpiretan puntuan.

Eguna alleatu zanian lau lagun azaldu gittuan, hiru eztulka; Antonio huan fresko eta kanturako gogoz zitxion bakarra. Olentzero eo erregiak enteatuko hittuan ba kompetentziya itea ginazela, ta gripia bialdu zitxiun kaudrila guztira. Aurten lortu die Gomezagon eskia ez itia baño datorren urtian bai, datorren urtian Gomezago ibiliko diau kalia gora ta behera, tabernaz taberna. Hurrenguan kontu geyo.

sukaldetik



Joxe Luis

## Karnabalak

Hala! Gabonak bukatu orduko hasi txun karnabalak:

-Amama! Amama Arritxu! Eukiko txozu gona zarra ta mantala, ezta? -Ane txikiak- Eske sorginez jantzi behar deu kuadrilan.

-Eh Amama! Nei basajaunan jantziya ingo? -Mikelek- Erreza da, Amama, saku zarrak josi ta listo!

-Baña zuek ze usten dezue, hau plaza dala o ze! Ez al tzenduen ba dantzari ta pelotariz jun bihar ba?

-Amama, hoiek eskolakuak dia. Geo kaleako beste bat biar deu!

Ai ama! Bat nahikua ez ta ume xixtriñ hauek bi biar omen dizkiñe. Burutik bera jantzi bat bestian atzetik sartzia al dia ba karnabalak? Ta klaro, burutik bera sartze dizkiñen hoxek amama Arritxuk in bihar! Gañia neure seme alabak txun okerrenak; betire: - Eskau amamai, seguru badakala.

Ta kitto, haxen problema ta buruko miñak jun txun. Kulpak guriak pralle ta monja haxena bialtzeatik. Neska! Garai batian tontokei gutxiok in e bizi gutunan.

Zoritzarrez e naun bakarra. Majina batek esate zian plazan beaxe e berdin berdin dabilzala, ezuela karrerik iten seme alabekin; amaman etxia ostatutzat hartuta dakela ta beste hainbat kontu. Izan e, Baleikeko txoko hau dalata hamaika emakume zintzo etortze zaiten, batzuk zoriontzea, beste batzuk eskertzea re bai ta gexenak kejak eta gaxki daben gauzak kontatzea. Kontau ezin dianak jasotzeko re jarri ñat buzoi txiki bat plazan, sartu ta eskubita daon txokuan; "Arritxu" besteik etzio-

nat jarri, baño nahi dunak errax bilatuko din.

Ba esate nun bezela, radio makuto baño kontu gexo zikiñat, batzuk kontau eziñekuak, baño kontatzeukuak beste danak. Gaur bi keja zizkanat, bixak e errax arreglatzeukuak.

Lenengua beko plazan daon jolaslekukua den, leno atiak zitxibenat hortakua. Fijatu al tzeate nola ibiltzen dan burnizko atia dinbi ta danba umiak bultzata? Ez ote din iñork biatzik harrapatu? Ate hori kentzia ez den beste munduko lanik, izan e zertako ote zion atia jolasleku batian?

Bigarena, keja baño bildurra den; izan e Amaiako plazan barrena nuan bakoitzian ta grua hoxen azpizan umiak jolasian ikuste izkiñatenian bihotza uzkuetze zaiten. Seguruak omen txun ta lasai eoteko esate ñe hortaz dakixenek, baña nei bildurra emate zian.

Karnabaletan ez al da grua botatze txuen axkolai taldeik ibili? Hoxei bai, hoxei gustoa ingo nitxizkiñe trajiak, baita axkoak eosi re!



Arritxu

## Gona kontuak

Ez tek giro. Ez nian aspaldian halako hezurretako hotzik pasa! Erruki butanoik gabe geatzen dana!

Kuadrilakuak e tertulia lekuz aldatu bihar izan diau, estalapan ezitxion da eoteik e. Soziedadea jun gattuk, epelea (soziedadian izenik ez ematia erabaki yu, publizidadeik inori ez eiteko). Baña tertulia, beti bezela, segituan irakiten jarri dek .

- Aurreko "Baleike" letu al dek Joxe Luis?- Manuelek, parrez parrez.

- Geyena bai, inportantiena- Neuk.

- Neuke letu yat- Erramunek- Spingin o danadalako horrek kuriosa emateik...

- Hi Erramun, nahiko yu! Hori guaintxe arte "ziklostatik" itia huan, ta hik hortako aurrena bizikletan ibiltzen ikasi bihar dek gañia.

- Ai Erramun, hiri ziklostatik gañekuak iruitu zaxkik "kuriuak"

- Ta Damianen andriana ez al dezue letu? Axkolayak nahi omen dixkik Amaia plazako grua botatzeko.- Antoniok.

- Bai egiya, neuke letu yat.- Loentzok.

Eztiau bate parrek in, Arritxu gora ta axkolayak bera; kontuatzeako ilundu dik. Aldeiteakuan danok adarra jotzen:

- Damian, andriai ezaiok aber badakin zer dan "rotaflesa"!

Hurrengo egunian han datorrela Damian buru makur; jesukristonak eta bi aituta; lur jota;

- Joxe Luis, andriak esantziak naekena esateko baño beai behintzat kasu ite zaiola, beitzeko bestela beko plazan nola kendu duen atia, beak eskatuta bezela. Ta geyo re esan zixkak, guriak arduan deliriyuak diala, garajak baño hobe deula panteoi merkiak eskatzia, zer asmatu ez dakiula ta etzikiat ze geyo... Ah bai, Joxe Luis, andriak esan tziak aber jostorrata zer dan badakiken!

- Esango zixkian bai, hire andria beti izan dek eta lotsagabia. Ta beko plazako kontu hori zer dek?

- Honen andriak zea eskatu zian- Antoniok seriyo seriyo- beko plazan, leno atiak zibitien hartan, umien parkia jarri zien, ta sareran ate bat zitxion; ba Arritxuk hura kentzeko eskatu ta hurrengo egunian bertan kendu omen zien.

Beste kontuik ez omen zebilek plazan da kafeteyan.

Siniistu ezinian beko plazaño jun gattuk Erriberako taberna danak salto inda... ta egiya! Atia kenduta zio!

Orduan somatu yat Arritxun jostorratan zaza!

Soziedadea bueltatu ta asanblea in diau ardo botellan bueltan, ta gauza batian behintzat danok bat etorri gattuk: Arritxuk txismia ta memelokeya besteik etzikak: bateko bazkaya ta besteke keja, ta tartian tartian zoakeyen bat (ditxosozko grua hoyena); ta andre horrek esandakuai autoridadiak kasu in ta hurrengo egunian atia kendu? Argi zio! Arritxuk entxufe trifasikua zikak autoridadiakin, izan e azkenaldiyan gurian autoridadiak gonak zixkak, ta gona gonakin beti neurrira!

Gauzak nola daben ikusita Ayuntamiento aurrea gona eskozesak jantzita jutia pentsau diau kuadrilan, aber hola behintzat kasu iten dun autoridadiak!

Ayuntamientua obretan daonez noa jun bihar deun pentsatzia besteik etzaiguk falta!

Laixte jakingo dezue nun da noiz!

Ayuntamientua obretan daonez protestan noa jun bihar deun erabakitzia besteik ezitua falta.

Laixte jakingo dezue nun da noiz.

## estalapetik



Joxe Luis

# Karga-deskarga

Dauneko batzuk hiru bat aste; estalopian  
gitxibian (non bestela egualdi harekin) eta  
belarritako jositako gazte bat bildu huan  
gurena, lotsatu xamar. (Damianek esaten  
denez goiko Erramunen iloba omen huan,  
baina nik neuk gaur egungo gaztiak ez dizkiat  
ezautzen; bilobak justu justu). Gaztiak,  
edukazioz arratsaldeonak eman eta zapla  
bota zian bota biharrekua: Baleiken edadetuen  
ahotsa faltan botatzen omen zian  
herriyak eta ea gu prest omen geben zer edo  
zer "idazteko".

Zoro etxetik ihesitakoei bezelaxe beiratu  
genitxion eta ezer esan baino lehen beak hartu zian berriz aurria: «Idazten  
ez bazeate ATREBITZEN, zuek kontau eta neuk idatziko det». «Atrebitu  
ez gu?», hala esan genitxion Baleikeko gaztiari, «Atrebituko ez gaituk, ba,  
motel, ze usten dek guk ez geniala eskribitzen ikasi o ze?». Esan, hala esan  
genian, eta orain bete egin behar.

"Atrebitu" ta gero ez diau ia beste kontuik izan estalopian. Kronista  
aukeratzeakuan aspaldiko kontuak harrotu dizkiau: zeinek zekan letra  
onena, zeinek jasotze zun beti diploma... Danok berriz e eskolan bezela.  
Azkenian, zotz in diau, beti bezela. Ta neuri tokatu bihar!

"Behin kronista izendautu kronika itia erreza dek, Joxe Luis, guk kontau  
ta hik eskribiu" hala jarduten zie lagunek, danak gustoa tokatu ez zaielako.  
Eta ez die arrazoi faltik beti zioek eta ze kontatua eta ze jarduna.

Eta halaxe hasiko nauk, lagun artian gehien komentatzen danakin.

Danok zikiu Erribera kalia ezin dala aparkau, baino bertako komertzio  
eta gainerakuek generua ingurau ahal izateko "Karga-deskarga" ametitze  
die goizez. Hala ere Zumaiarrok goizero, goizero Erribera kalia kotxez itotzen  
diau; bi azerak "karga-deskargan" daben kotxez beteta eta erditik autopista.  
Erriberan oinez atzea ta aurea ibiltzia kosta eiten dek geo.

Izan ere, batzuntzat eozer dek "Karga-deskarga":

Bankutik pasa biharra dakaula zeozerta? Lasai, kotxea "karga-deskargan"  
utzi banku aurrian ta barroa.

Periodikua ta ogia hartu bihar diala? Hori "karga" dek bate dudik gabe.

Baxoerdia hartu nahi deula? Aparkalekua tabernan aurrian, hori ere  
"Karga" dek eta.

Oestian bezela Erriberan e dana libre!

Ta txaperuak? Nun dia txaperuak? Beste batzutan earki astintzen dizkie  
abixuak eta multak baina Erriberan pasian ere etxuk ikusten.

Baten batek pentsatuko dik geure buruai baino etzioula beitzen, baina  
gu baino okerro ibiltzen txuk ume kotxiakin pasian gora ta behera dabilzan  
ama eta neskameak, haiek bai eskertuko duela "Karga-deskarga"-kin  
bukatzia.

Eta "autoridadiak" jakin beza lotsagarria dala herriko kale nobliena  
kotxien aparkaleku bihurtzia, eta okerro oaindik beste aldea beitzia ezer  
pasako ez balitz bezela.

Hurrenguan kontu gehio.

# Babes ofizialeko garajiak

Motellak! Eztek giro!

Kronika hau hilero in bihar gendula benetan kontuatu nitzanian  
pentsatu nian:

–Ta notiziyak? Ze kontatua eongo ote dek Zumaian? "Zaharra  
berri, gaztien amorragarri" esate zian gure amonak, bere amonak  
ala eakutsita.

Ta halaxe esan nitxien kuadrillakuei:

–Kronika danon artian in bihar diau bai, ta badakizue, notiziyak  
bihar dizkiat, notiziyak. Ta ez badao asmatu, baña asmatzekotan ona  
asmatu.

Eta, motellak, aspaldian notiziya besteik etziok.

–Hi Joxe Luis —Juan Marik— ikusi al dek nolako draga datorren  
erriyuan gora? Hori bai barkua ta ez garai bateko gabarra zahar hura!

–Guain etorri bihar al zian horrek lokats dana altzatzea? —Juakinek  
aldamenetik— Umiak erriyuan bañatzen dian sasoian? Lotsik ez!

–Hi Joxe Luis —Karlosek— geraniyuak jarri dixkie karretera generalian!

–Hi Joxe Luis...

Ta Joxe Luis letxe batian.

–Hi Joxe Luis —Damianek, adar jotzen— nun aparkau dek ?

–Gaur eztiat kotxeik ekarri, mollan arrasto oker hoiek pintau dixkienetik  
etziok aparkatzeik eta. Gañia ibiltzia ona omen dek.

–Bai motel, egunian egunian kotxe geio ta geo ta leku gutxiyo —Karlosek—.

Ta uda hasi baino eztek in. Eon hai kanpotarrak arrimatze

txukenian nolako festa.

–Baña nola aparkatuko dek ba udan, neguan nahiko lan izaten dek

eta astebukaeran. Garai batian Larretxo

omen uan problema, baina gaur

egunian zubi txikitik barrura etziok

aparkatzeik. Eta zubi txikitik kanpoa e

kostata.

–Badakizue ze in bihar dezuen, Garajia

erosi ta kitto. —Juan Marik—.

–Igertze zak bai etxe onekoa haixela.

Garajia erosi esaten dek? Ta dirua

zeñei lapurtuko ziot, hiri?

Hor jardun diau, estalapan, txikiteoko

ordua artian, geo baxoerdiak nahiko

lan eman ziu, baña erretiran nijuala

zea pensatu diat: "Zeatik ez ote dia babes ofizialeko garajiak iten?"

Iten dia, ba, etxienak? Ta garaje biharrik ez al dao, ba?"

Ta halaxe hitzein diat kuadrillakuekin eta danok "de akuerdo"

behingoz (bueno, Juan Marik ezтик arpei onik jarri baño horrek

bazikak garajia), iruitzen zikuk babes ofizialeko garajiak itiak asko

hobetuko lukela bertakoen aparkatzeko arazua. Bazikiu askok

parregarrizat hartuko duela (seguru garajia badakela), baña bitartian

batzuk nazka nazka inda gatzibek aparkatzeko letxe horrekin;

kotxeko inquestua kobratzeakuan earki akordatzen dia zenbat

kotxe daben.

Autoridadiak babes ofizialeko garajetxo batzuk in eta hiru mila euroan

edo salgai jartzia bai izango zala lore ederra, zimeltzen ez dan

hoietakua.

# Bero eta ixtu

Bero zitorrek uda, bero; eta ixtu!

Estalopian ibiltze geazenak e ez gattuk oaintxe mollako aparkamientuan kabitzen.

Etzibilek beste kontuik inguruan, aparkamientua gora, aparkamientua behera. Ezin kabituan danok. Eta gañea bero!

Kuadrillan indako kontuetan mollar zibituan aparkalekuen erdiak eo zibek gaur egunian. Ta ez pentsatu geo eozein moutan indako kalkuluak diazenik; alperrik ibili dek, ba, Damian, aparkalekuak banan-bana kontatzen mollar gora ta behera zebilen bitartian. Betitik izan dik Damianek buru ona numeruentzat eta etzian bat bea ere utziko kontau gabe. Konparaziyuak iteko planuak, berriz, Antonio deliniantiak in dixkik, leno aparkatze zan mouan sartze zian kotxiak beltzez eta oaingo arrasto madarikatu hoiek gorritz ondo-ondo markatuta. "Hermano Luis" alu harek esate zian bezela "matematikak eta apaizak ez die gezurrik esaten": leno bi aldiz kotxe gehio sartze huan mollar gaur egunian baño.

Ta horrek beti sortzen dik ze esana ta ze iña. Karlos sututa zibilek (beti izan dek pronto txarrekua gizon hau) doble filan utziku duanan amenazuka egunero; Juan Marik berriz molla ta Amaia plazan "Bertakoak" eo "Betikuak" dianentzako aparkamientua eskatzeko firmak biltzen hasi bihar omen dik estalopian bertan mahaia jarrita; ta Antonio... Antonio etsita zikau, lurjota, garajien prezuyuak galdetzea jun eztek, ba.

Gañontzeko kuadrilletan e antzeko komentayuak aitze txuk: aber zeatik hasi dian udan, kotxe gehien juntatze dan tenporadan, aber kanpotarrak uxatu nahi txoun, aber Zautzan enbidiya dakaun... danetik aitze dek, baita bizikleten bidia jartzeko ordua bazala ere.

Nik neuk etzikat inolako intentzioik nere iritzia emateko; jesukristonak eta bi aitu bihar izan dixkiat babes ofizialeko garajiak ziala ta etziala bai, ta hemendik aurea kuadrillako izkribientia baino ez diat izan nahi.

Ta kuadrillan mila buelta eman da geo atea dixkiau gure ondorioak; ze egia dek "Hermano Luis"en garaian esplikazio gutxi eta belarrondoko ugari jasotze huala, baño horrek ez dik esan nahi eskolaik ez dakaunik, ta urtien eskolak esate ziuk autoridadiak ez dula sekula santan dirua biltzeko aukeraik galtzen; horreatik, zea pentsatze diau kuadrillan: lenuo eo beranduo autoridadiak aparkatzeatik kobratu nahiko diula, bai, ditxosozko TAO, OTA, eo holakon bat. Ez dek gañia gure kuadrillan bakarrrik aitutako komentayua.

Ez ote deu holakoik ikusiko bizi gean artian, baño piatu hai zezenakin. Dana dala, ta biziik harrapatze baziuk e, ez huke txarra izango, Autoridadian aldetik Eusko Tren eta holakotan jubilatuentzat jartzen diazen deskuentuak aparkamientuan e jarriko balitu. Hurrenguan kontu gehio.



# Ditxosozko bakazixuak

Bukatu txun; kostata baño bukatu txun ditxosozko bakazixuak.

Ene! Aurtenguan e ezinat bate errezzatu agostua bukatzeko; izan e Caritas emate ñau: bateko umia ta besteko jatekoa, ni behintzat beti bukatu ezinian ibiltze naun. Normalian semia etortzen den goizian goiz Mikelekin, etxeko txikixakin ta alaba geo Amaia eta Itsaso bixkixekin. Maitagarrixak hirurak, baña zezen txikixak baño bihurrixo.

Ordurarte jasotako guztixak aitaren batian nahastu ta segituan txun sukaldian:

- Amama, Triskis!

- Amama, amama, nik txokokrispis!

- Amama Arritxu, guazen parkea

- Amama...

- IXO!! Hainbeste triskis ta traskis geo. Ala, jaso atea txozuen trastuak ta guazen noabaitea.

Etxia hankaz gora utzi ta parkea jute gattun laurok; han e ixa egunero izate ñu zirkua; bat kolunpixon bultzatzeko iñez, bestia berriz txirristan eroi ta near batian, ta askotan hirugarrena nun dabilkiun arrastoik gabe.

Hamabixak aldian erraña ta alaba etortze txun, plaiatik bueltan umiak jasotzea; ni berriz etxea presaka gizonai bazkixa prepaatzea.

Ta etxia hankaz gora, nork jasoko zai. Akabo atsaldeko siesta.

Ta aste bukaera alleatu orduko, ala! Danak geurera:

- Ama, plaiatik bueltan jungo al gea bazkaita?

- Ama, eukiko al txozu umiak gaur gabian? Afaita jun nahi deu lasai-lasai aspaldiko partez

Nik entenditze dinat, gaztiak txun ta bakazixuak disfrutatu nahi dizkine, baña "amama Arritxuk" e mereziko txu ba bakazixuak, eo? Ba, ezetz ematen din, agostuan ez behintzat, hil hontan baño lan gehixo ez diñat eta inoiz iten.

Gizonak zeoze ingo balu sikiera...

Hura bai bizi dala bakazixotan, jubilau zanetik gure Damian bakazixotan bizi den. Beti badin zeoze

etxetik ihesixan juteko, batian batela

atxikatu bihar dula, hurrengo

semia ta bixak itxaso dijuazela,

hurrengo berriz lagunekin geatu

dala... Batzuk ondo bizi txun,

ondogi. Denbora nola pasa etzikine

ta hor ibiltze txun, batei punta

atea ta bestiai zirixa sartu, estalapan.

Gure Damianek e majina

ordu alperrik galtzen dixkin Erribera kalia gora ta bera zurrutian.

Ta ikusi nunian Joxe Luis Mokok ta bere akolituek (tartian gure Damian) Baleiken "jubilauen izenian" eskribitu bihar tzuela pentsatu niñan:

- Alper kuadrila honek tontokexak besteik ez dizkiñe kontatuko, bai, ta neuk e Baleikekuekin hitzeingo ñat aber lan iten deun "jubilauentzat" e tarte bat daon.

Baleikeko hoxek etzikinat ze maketazixo problema ziala ta etziala behintzat bixak batea ezin tziala atea esan zinenan, ta batian bat ta hurrenguan bestia txandaka ateko zittuela. Nei soluzixo ona iruitzen zikan, batez e Joxe Luis Mokoi ta gure Damiane bere tontakexen partez hau ikusten duenian jarriko zaien tripako miñakin akorratzen zaxenian.

Guain herriko plaia, disfrutatzea.

# Hemen gaituk berriz e

Hemen gaituk berriz e; hemen gaituk bueltan. Ta gañia seguru gatxibek guk dakiun batek nahi baño irakurle gehiok bota txula faltan gure kontuak. Guri behintzat majina bat herritar arrimatu zikuk kezkatuta; aber ba aurreko hilian zeatik ez deun eskribitu, ia ez deun gehio eskribitu bihar, ta holakuak.

Egia esan, Baleikeko tximoso hoiek ezteik meezi; nola leike ezerre esan gabe fiñ-fiñ indako kronika ez publikatzia, ta hori izango bauke dana... guria kendu ta beste kontakatilu horren inpertinentziyak jarri etzixkien ba!

Hamabost egunian eztek giro izan kuadrilan; bateko biraua ta besteko madarikaziya! Lotsik ez, ez batek ta ezta bestiak e; batek, kontakatilu piiiiiitiiiiii! horrek esan dittunak esateatik, eta beste tximoso piiiiiitiiiiii hoiek gurian partez beria jartzeatik.

Etorri huan hurrengo hila ta han zitorrek Baleikeko tximosua e punttu puntuan "kronika" eske. Jesukristonak eta bi aitu zizkian gizajo harek! Damian heldu in bihar izan ginian, lepoa salto ingo zitxion bestela.

Hura huan marrua in hura, Oriyoko balianak txiki laga zizkian Damianek. Baña ez huan bakarra izan; zeñek esan tzian euskeraz birauik etzala? Etzixkian ondo ezautzen kuadrilakuak!

Azkenian, aurrez erabakita bezelaxe, zea esan ginitxion tximosuai, huelgan gebela ta hil hontan etzeola kronikaik. Tximosuak marziano arpeya jarri zian:

- Huelgan? Ta ze eskatzen dezue?

- Ze eskatuko diau ba, beste kontakatilu piiiiiitiiiiii horren inpertinentzi gehio ez jartzia!

- Baña esan genizuen igual beste batenbatekin txandaka ateako gendula ta— tximosuak.

- Ba oain badakik zein dan kondiziyua, kronika nahi badek hilero jarri biharko dek, bestela batez!

Han jun huan tximosua, mela-mela inda, putzutatik ertenda bezelaxe.

Astebetera azaldu huan gure tximosua, marziano arpeyakin, baño lasai xamar:

- Ze oaindik huelgan?

- Aber ba! Ta kronika ze, hilero?

- Juxtu hortaz hitzegin nahi nun zuekin. Arritxukin eon gea ta esan diyau ze eskatzen dezuen...

- Ta ze esan dik piiiiiitiiiiii horrek!

- Esan diu lasai eoteko, beak hilero hilero eskribituko dula; gañia zuenak baño gauza inportantiauak omen dazka kontatzeko.

- Ta zuek kasu in ezta, txoro hoiek

- Ez, guk nahio txandaka iten badezue baña huelgan segitzen dezuen bitartian Arritxuk ingo omeen txu.

Berehala bukatu huan huelga; hori bakarrik falta diau ba, kontakatiluak eskribitzia hilero.

Orduan badakizue, ondo disfratau kronika hau, letu bi aldiz, datorren hilian ezta ezer interesanteik eongo ta.

# Badator Olentzero!

Bada kontua ta komerixa; "gizonak" ez omen dia, ba, konforme. Dana beaxentzat nahi diñe, beti bezela; beaxek txun inportantiak, beaxek ta beaxen mozkor kontuak. Ta beste batenbategen zeoze esan nahi dunian, protesta! Ba, niatik in dezatela near, in dezatela near ta protesta, gosetzen dianian etorriko dia ta etxea.

– Neska, hauekin noa? –esate zitxian Madalenak plazan– Laiste montauko ñe alardia martxa hontan!

– Alardia? Ta zeñek ingo zizkine uniformiak? Damianek behintzat buzua eraman biharko din, ez behintzat nik indako erropaik.

– Alardia montatzeko denboaik e ba al zikane ba? Hamaiketakua ez danian txikiteua den, ta bestela txalupa arreglatzia, etxeako behintzat ez diñe denpoik inoiz, ta alardia prepaatzeko ez denboaik ezta baloreik e! –berriz e Madalenak.

– Gure Joxemarik behintzat etxeako zerralla aldatuta bilatuko din ditxosozko alardia aitatu re iten dadin –Genobebak.

Majina emakume etorri zaiten animuak ematea, arrazoi detela esanez ta ez atzea iteko erregutuz. Ta halaxe erabaki dinat, ba, aurrea itia, ta mozkorren komentayuai apaizanai bezainbeste kasu eitia.

Ta kontu serixotan jarrita gauza bat behintzat nahi dinat komentau; Ayuntamientuak gabonetako bialdu dun programa.

Biloba ikusi niñan ixil ta goibel, letzen ikasi berrixa den ta buzoiko propagandak e goitik bera letze ixkin. Zer tzun galdeu ta zea esan zitxanan:

– Amama, aurten zeatik ez dator Olentzero?

– Olentzero eztatorrela? Ta zeñek esan dizu hori, bihotza?

– Gabonetako programan ez ta agertzen amama, ta etorriko balitz programan jarriko luke.

– Lasai, bihotza, etorriko data.

Etzendun ondo letuko.

– Amama, nik badakit letzen, e!

Biloba jun da geo, kurisidadez, ayuntamientotik bialdutako programa beiratu ñat ta, bilobak arrazoi!

Erregian karterua batetik eta erregiak bestetik, ta Olentzeron arrastoik ez! Patxi xarran garaxan bezelaxe.

Bestelare batzuntzako nahiko errege ez, ematen dunez!

Karta itekotan eon naun Ayuntamientoa, baña azkenian karta jaso, "eztabaidatu", berriz "eztabaidatu" ta eantzuteako Aste Santu bueltan eongo geanez, denboaik ez alperrikaltzia erabaki ñat.

Karta horren partez sukalde txoko hau aprobetxatzia pentsatu dinat aurten ere Olentzero badatorrela esateko. Nire biloba bezelaxe, Gabonetako programa irakurri duten gainontzeko neska ta mutikoxkorrek jakin dezaten, autoridadia ahaztu bada re Olentzero eztala ahaztu, ta aurten e etorriko dala, ikatzak belztuta, pipa hortzian, arrautza, kapoi ta ardo botilakin, irrifarrez, beti bezela!

Afata, ordia, guk prepaau biharko ñau, urtero bezela, Olentzero re gizezku den eta.

# Gomezago gripiak jota

Ba ote batenbat sano? Inor libratu al da? Gripia pasa eztunik ba al dao?

Motellak! Halako gizona ta ezertako gauza ez! Hauetxuk eztulak eta hezurretako minak; hau dek barruak hustu biharra; guaintxe "trentinuebetik" gorako kalentura, guaintxe hoztuta.

Astebete pasa diat ohitik jaikitzeke gauza enitzala. Baña okerro eon txukenak e ezautze izkiat. Kuadrilan, Antonio ez, beste danok harrapatu diau gripia; Joxe Mari urgentzita re eaman tzian alabak bost egunian kalentura jetxi ezinda ibili ta geo.

Okerrena ordia zea dek, geyenok ditzosozko bakuna o dana dalako horren zaztaa jasotakuak ginala. Marka dek geo, sekula gripeik pasa gabekuak bakuna deitze yoen hori hartu ta jesukriston gripia jota ibli gaituk. Bela sartuko zie orratza hurrenguan!

Ba, gripiak jota ibilita re ez pentsa geo etxe zuluhan sartuta eon geantik; haizia hartzia ona dala esate ezte ba, ta non estalapan baño haize hobia?

Gabon kontuekin ibili gaituk gora ta behera estalapan;

- Naekena esango ek Damian, baña lasaitasun earra zioek Erriberan musika eztaonetik- Joxe Marik adarra jo nahian

- Ze esateek geo, bigarren taberna zulutik ertetzeako katxaperuak e etxuk eta somatzen- Damianek

- Ta laugarreneako ikusi re gutxi!- Antoniok- Baña arrazoi zikak Joxe Marik. Izan e ze musika zian haxek.

- Batzuk behintzat beti kontra eongo zeate- Manuelek- Musika daonian daolako ta eztaonian eztaolako, beti protestan!

Baña beroaldi haundiyena erregien ta Olentzeron bueltan sortu huan; gabon bezpera eo izango huan Martin luxia bero bero inda azaldu zanekua

-Nazka nazka in nauk guaintxe bateko errege ta besteko olentzerokin; esan ezte ba bilobek Olentzeron erregaluaz gain erregientzat zapata re jarriko duela gurian! Hori bakarrik falta nian, nahiko buru hauste ez erregalo bat iteko ta guain zea, erregientzat beste bat!

- Okerrena eztek hori! Batetik erregiak eta bestetik Olentzero, eztek besteik aitzen, ta Gomezago ze? Non laga die Gomezago?, batenbat akorratze al da arrantzale xelebren harekin?- Damianek, ia bere onetik ateata.

-Arrazoi guztiya dakak Damian-Neuk- Seguru nitxiok hamabost urtetik beherako mutil eta neska koskorrek hobeto ezautukoxkiela bizartzuri ta Papanoel Gomezago baño.

-Trixia dek baño egiya. Hi, ta geuk iten bayu, ze?- Damianek

-Ze in bihar diau ba?- Joxe Marik

-Zea, Gomezagon eskia; izaria besteik eztaieu bihar. Gañia kantuan gu bezela gutxik iteye!- Antoniok

-Neuk ekarriko diat izara txuriya- Joxe Marik

Ta hala geatu gittuan hamabost gizoneko kuadrila gabon arratseako estalapan, zazpiretan puntuan.

Eguna alleatu zanian lau lagun azaldu gittuan, hiru eztulka; Antonio huan fresko eta kanturako gogoz zitxion bakarra. Olentzero eo erregiak enteetuko hittuan ba konpetentziya itea ginazela, ta gripia bialdu zitxiun kaudrila guztira. Aurten lortu die Gomezagon eskia ez itia baña datorren urtian bai, datorren urtian Gomezago ibiliko diau kalia gora ta behera, tabernaz taberna. Hurrenguan kontu geyo.

# Karnabalak

Hala! Gabonak bukatu orduko hasi txun karnabalak:

--Amama! Amama Arritxu! Eukiko txozu gona zarra ta mantala, ezta? --Ane txikiak-- Eske sorginez jantzi behar deu kuadrilan.

--Eh Amama! Nei basajaunan jantziya ingo? --Mikelek-- Erreza da, Amama, saku zarrak josi ta listo!

--Baña zuek ze usten dezue, hau plaza dala o ze! Ez al tzenduen ba dantzari ta pelotariz jun bihar ba?

--Amama, hoiek eskolakuak dia. Geo kaleako beste bat biar deu! Ai ama! Bat nahikua ez ta ume xixtriñ hauek bi biar omen dizkiñe. Burutik bera jantzi bat bestian atzetik sartzia al dia ba karnabalak?

Ta klaro, burutik bera sartze dizkiñen hoxek amama Arritxuk in bihar! Gañia neure seme alabak txun okerrenak; betire:

- Eskau amamai, seguru badakala.

Ta kitto, haxen problema ta buruko miñak jun txun. Kulpak guriak pralle ta monja haxena bialtzeatik. Neska! Garai batian tontokei gutxixokin e bizi gitunan.

Zoritzarrez e naun bakarra. Majina batek esate zian plazan beaxek e berdin berdin dabiltzala, ezuela karrerik iten seme alabekin; amaman etxia ostatutzat hartuta dakela ta beste hainbat kontu. Izan e, Baleikeko txoko hau dalata hamaika emakume zintzo etortze zaiten, batzuk zoriontzea, beste batzuk eskertzea re bai ta gexenak kejak eta gaxki daben gauzak kontatzea. Kontau ezin dianak jasotzeko re jarri ñat buzoi txiki bat plazan, sartu ta eskubita daon txokuan; "Arritxu" besteik etzionat jarri, baño nahi dunak errax bilatuko din.

Ba esate nun bezela, radio makuto baño kontu gexo zikiñat, batzuk kontau eziñekuak, baño kontatzekuak beste danak. Gaur bi keja zizkanat, bixak e errax arreglatzekuak.

Lenengua beko plazan daon jolaslekukua den, leno atiak zitxibenana hortakua.

Fijatu al tzeate nola ibiltzen dan burnizko atia dinbi ta danba umiak bultzata? Ez ote din iñork biatzik harrapatu? Ate hori kentzia ez den beste munduko lanik, izan e zertako ote zion atia jolasleku batian?

Bigarrena, keja baño bildurra den; izan e Amaiako plazan barrera nuan bakoitzian ta grua hoxen azpitan umiak jolasian ikuste izkiñatenian bihotza uzkurtze zaiten. Seguruak omen txun ta lasai eoteko esate ñe hortaz dakixenek, baña nei bildurra emate zian.

Karnabaletan ez al da gruak botatze txuen axkolai taldeik ibili? Hoxei bai, hoxei gustoa ingo nitxizkiñe trajiak, baita axkoak eosi re!

# Gona kontuak

Ez tek giro. Ez nian aspaldian halako hezurretako hotzik pasa!

Erruki butanoik gabe geatzen dana!

Kuadrilakuak e tertulia lekuz aldatu bihar izan diau, estalapan ezitxion da eoteik e. Soziedadea jun gattuk, epelea (soziedadian izenik ez ematia erabaki yu, publizidadeik inori ez eiteko). Baña tertulia, beti bezela, segituan irakiten jarri dek .

- Aurreko "Baleike" letu al dek Joxe Luis?- Manuelek, parrez parrez.

- Geyena bai, inportantiena- Neuk.

- Neuke letu yat- Erramunek- Spingin o danadalako horrek kuriosua emateik...

- Hi Erramun, nahiko yu! Hori guaintxe arte "ziklostatik" itia huan, ta hik hortako aurrena bizikletan ibiltzen ikasi bihar dek gañaia.

- Ai Erramun, hiri ziklostatik gañekuak iruitu zaxkik "kuriuak"

- Ta Damianen andriana ez al dezue letu? Axxolayak nahi omen dixkik Amaia plazako gruak botatzeko.- Antoniok.

- Bai egiya, neuke letu yat.- Loentzok.

Eztiau bate parreik in, Arritxu gora ta axkolayak bera; kontuatzeako ilundu dik. Aldeiteakuan danok adarra jotzen:

- Damian, andriai ezaiok aber badakin zer dan "rotaflesa"!

Hurrengo egunian han datorrela Damian buru makur; jesukristonak eta bi aituta; lur jota;

- Joxe Luis, andriak esantziak naekena esateko baño beai behintzat kasu ite zaiola, beitzeko bestela beko plazan nola kendu duen atia, beak eskatuta bezela. Ta geyo re esan zixkak, guriak arduan deliriyuak diala, garajiak baño hobe deula panteoi merkiak eskatzia, zer asmatu ez dakiula ta etzikiat ze geyo... Ah bai, Joxe Luis, andriak esan tziak aber jostorratza zer dan badakiken!

- Esango zixkian bai, hire andria beti izan dek eta lotsagabia. Ta beko plazako kontu hori zer dek?

- Honen andriak zea eskatu zian- Antoniok seriyo seriyo- beko plazan, leno atiak zibitian hartan,umien parkia jarri zien, ta sarreran ate bat zitxion; ba Arritxuk hura kentzeko eskatu ta hurrengo egunian bertan kendu omen zien.

Beste kontuik ez omen zebilek plazan da kafeteyan.

Sinistu ezinian beko plazaño jun gattuk Erriberako taberna danak salto inda... ta egiya! Atia kenduta zio! Orduan somatu yat Arritxun jostorratzan zaztaa!

Soziedadea bueltatu ta asanblea in diau ardo botellan bueltan, ta gauza batian behintzat danok bat etorri gattuk: Arritxuk txismia ta memelokeya besteik etzikak: bateko bazkaya ta besteko keja, ta tartian tartian zoakeyen bat (dixosozko grua hoyena); ta andre horrek esandakuai autoridadiak kasu in ta hurrengo egunian atia kendu? Argi zio: Arritxuk entxufe trifasikua zikak autoridadiakin, izan e azkenaldiyan gurian autoridadiak gonak zizkak, ta gona gonakin beti neurrira!

Gauzak nola daben ikusita Ayuntamiento aurrea gona eskozesak jantzita jutia pentsau diau kuadrilan, aber hola behintzat kasu iten dun autoridadiak!

Ayuntamientua obretan daonez noa jun bihar deun pentsatzia besteik etzaiguk falta!

Laixte jakingo dezue nun da noiz!

Ayuntamientua obretan daonez protestan noa jun bihar deun erabakitzia besteik eztaiu falta.

Laixte jakingo dezue nun da noiz.